

ARROLA (668m)



Inguruko biztanleek mendi hau Ezkila izenarekin ere ezagutzen dute. Mendi hau Orozkoko harana eta Amurriokoaren artean kokatzen da. Tontorrak ikuspegi onak eskaintzen ditu. Nahiz eta gaur egun Bizkaia ea guztia pinuz josita egon. Tontorretik gertu pagadi txiki bat dago, antzina baso autoktonoak inguru guztia osatzen zuen seinale. Tontorrera leku ezberdinetatik igo daiteke. Gure kasuan PR ibilbidearen zati bat aukeratu dugu.

Tontorrean Santa Marina basiliza kokatuta dago, horren alboan aterpetxe bat ere eraiki zuten. Ibilbidea Katadio auzotik hasiko dugu. Ibilbidea laburra iruditzen zaionari ibilbidea luzatu ahalko du Jesuli tontorra bisitatzu adibidez.


HASIERAKO PUNTURA NOLA HELDU:

Orozkoko Katadio auzoan dagoen Santa Andres basilizatik irtengo gara. Horra heltzeko BI-2522 errepidea hartuko dugu. Laudiotik Orozkora doan errepidea hain zuzen ere. Orozkon herrira sartu gabe kanpoko aldetik gurutzatuko dugu. Zubiaur auzora sartzeko aukera ezeztatuko dugu eta zuzen jarraituko dugu, Altuberantz joango bagina bezala. Zubiaurrera sartzeko gurutze-bidetik 300m aurrera eginez eskumara desbideratzeko aukera izango dugu, Lakanduri-Katadio jartzen duen karteletik. Tunela zeharkatu eta 5 minutuz gorantza eginez Katadioko basilizara helduko gara.

INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- Luzeera: 5,05 km.
- Iraupena: 2,5 ordu.
- Desnibel positiboa: 334 m.
- Zailtasun teknikoa: baxua.
- Zailtasun fisikoa: baxua.

IBILBIDEAREN IRUDIAK:



**IBILBIDE ORRIA:****IBILBIDE ORRIA**

Irteera: Arrola 688 m.		Mendilerroa: Arrola	Data:
	Lekua	Norabidea	Deskribapena
1	San Andres baseliza	N090E	Katadioko San Andres baselizatik irtengo gara. Hormigoizko pistatik gora egingo dugu.
2	Bidegurutzea	N270E	Ezkerreko bidea hartuko dugu. Marka horiak eta zuriak jarraituz.
3	Bidegurutzea	N350E	Hormigoizko pistaren amaiera. Lokatzezko bidetik gora, markak hori-zuriak jarraituz.
4	Adarkatzea	N300E	Momentu batean markak utziko ditugu eta eskumako bidea hartuko dugu. Nahiz eta bide horretako zuhaitz batean gurutze bat ikusi.
5	Bidegurutzea	N320E	Pista batekin topatuko gara. Bertan seinale bertikala ikusiko dugu. Ezkerreko bidea Arrola jartzen duen norabidea hartuz.
6	Bidegurutzea	N310E	Pagadi eder batera helduko gara. Aurrez aurre pista batekin topatuko gara. Pagoen artean doan bidezidorretik gora egin eta jarraian tontorrera helduko gara
6	Tontorra	N150E	Igo dugun lekutik jaitsiko gara.